



↑ Hiria Kolektiboa.



Espazio publikoa eta lekuak

Konplexutasunaren kudeaketa

Espazio publikoa eta lekuak: zertaz hitz egin nahi dugu?
Espazio publikoaz hitz egiten dugunean elkarbizitzarako lekuez pentsatzen aritzen gara. Herritarrek beren bizitzan zehar jarduera azkengabeak garatzen dituzten plazez, kaleez, parkeez edo kale kantoiez. Irudika dezagun bizitza herri edo hiri batean, eta milaka leku agertuko dira oroimen partekatuei lotuak, bizitzearen eta elkarbizitzearen esperientziari lotuak.

Beti gogoan izaten dugu hiri espazioak gizarte baten, balio, tradizio eta ohitura sistema baten premiei erantzuten dieten sorkariak direla. Errealitate kultural, sozial eta politiko multzo baten ondorioa dira. Horregatik, aniztasuna eta konplexutasuna lehenik eta behin geure egiteko premisak dira pertsona guztien beharrezko erantzun dizkieten konponbideak osatu eta proposatzen saiatzeko.

Espazio publikoan lan egiteak begiratzeko molde bat ekartzen du, bizitzarekiko konfrontazio bat, praktika tekniko bat zeinean gure proiektu eta irudiak eratuko dituzten xehetasunak zenbait diziplinetako profesionalen arteko prozesu parte-hartzaileen eta sare-lanaren behaketa enpirikotik abiatzen baitira.

Beraz, auzi garaikidea eta espazio partekatuen gainbehera aztertzeke orduan, ondorioztatzen da une horretan lurraldea urbanizatzen dela, baina ez dela hiria (urbea edo elkarbizitza) sortzen. Ehun urtetik gorako elkarbizitza ereduak suntsitzen ari den desbideratze horren irtenbide posible bakarra izango litzateke hirietako espazio publikoak berreskuratzea, kultura tolerantetaren baten proba-banku handia izan behar baitute.

Eta begiratzeko, aztertzeke eta bizitzetarako lekuak proposatzeko modu horretan ez da kasualitatea *Hiria Kolektiboa* emakumeekin lanean aritzea eta herriak zein hiriak genero perspektibatik aztertzen hasi izana.

Eredu patriarkalen abolizioak rolen eta gatazkak konpontzeko ereduak birdefinizio bat ekarriko du, zeinean gizonezkoek uko egin beharko baitute indarkeria erabiltzeari haiek konpontzeko modu nagusi gisa. Botere espazioen definizioa dezente aldatuko da eta garrantzi gehiago emango zaie gaur egun aintzat hartzen ez diren lanei, espazio publikoaren bizitzari zuzenean lotuak; zaintza-lanez ari gara, funtsean.

Hiriak aldatzen ari dira, egia da, eta behar bada ulertu egin beharko da aldaketa horiek espazio berriak konfiguratu behar dituen gizarte baten estrategiei erantzuten dietela. Gure hiriak aldatzen dira, jakin gabe, eraldatze bidean dagoen elkarbizitza eredu bati erantzuteko, zeina, konpondu gabeko amets zaharren bisharamunean, aldatzen ari baita produkzioari eta kontsumoari zeregin kolektiboaren paradigma gisa bideratutako existentzia indibidualista baterantz.

Gaur egungo erronka horretan badago indar eta interes korrelazio bat, merkatuari lotua, eta, haren bidez, botereari, gainerako guztiok kanpoan utzi gaituena; gutxi batzuek bakarrik erabakitzen dute, eta hori, hots, denon artean erabakitzea, gakoa da espazio publikoa diseinatzeke, eta, batez ere, kudeatzeko moduan eraldatze sakona gerta dadin.

Une honetan, beharrezkoa da espazio publikoa bizitza moderno, zoratu, aberats, irisgarri, estresatu eta konplexu baten testuinguru gisa ulertzea. Esparru publikoan egindako jarduera erakusketatik edo berehalakotasunetik haratago joan behar du; sare-azterketa egin behar da gure hirietan jarduteke orduan, banakotasunetik abiatu behar da, osotasunaren parte bat den aldetik,

eta osotasunetik, parte infinituk osatua den aldetik, ongi ulertuta espazio publikoa negoziazio etengabearen lekua dela, zeinean hiriaren bizitzan parte hartzen duten aktore desberdinek elkar eragiten dioten.

Lekuak pentsa daitezke bertan sor litezkeen gatazketatik abiatuta; paperaren gainean konposizio ederrak sortzen dituzten lerroetatik, edo haietan bizitza erraza egiteko aukeretatik. Edo hori guztia batera jokoan jar daiteke.

Azter dezagun, esaterako, zer gertatuko litzatekeen hiru kontu horietatik bat bakarrik aintzat hartuko bagenu, eta ikusiko dugu nondik dabiltzan hankamotz gaur egungo hiri «sorkari» berriak.

- Gatazka posibleetatik abiatuta lekuak pentsatzean, gure gizartearen portaera negatibo, deliktibo edo inbolutiboaren hipotesi bati aurrea hartzen diogu, besterik ez; horren ondorioa izaten da belarra ez dela zapaltzen, bankuetan ez dagoela lo-kuluxka egiterik, estalitako lekuak gutxi direla edo espazio publikoa gaur egun leku gero eta kontrolatuagoa dela, zaintzen dutenen premiei ia eskusiboki erantzuten diena.
- Paperean lekuak pentsatzean, berrikuntza teknologikotik edo gure estudioetan bakartutako material berrietatik abiatuta, oso erraza da pentsatzea herritar guztiak diseinatzen ari den pertsona bezalakoak direla, eta hartara jainkosak izatera jolasten gara, zeren eta jakin gabe kalean zer gertatzen den, espazioa nork erabiltzen duen eta nola erabiltzen duen, haize asko ote dabilen edo urtean egun askotan euria botatzen duen, ezinezkoa baita txertatuta dauden munduari erantzuten dioten espazioak (lekuak) sortzea.
- Espazioak soil-soilik erabileratik pentsatzean, herritarrek une bakoitzean eskatzen dutenetik, premietako batzuk konponduko genituzke, baina seguru asko etorkizun malgu baterako edo kudeaketa egoki baterako funtsezkoak diren xehetasunak alde batera utziko genituzke; alde batera utziko genuke teknikarien lan funtsezkoa, hau da, premiak esperientzia aberats bihurtzearen, premiazkoa edertasun eta indar identitarioaren laguntza izatearen lana.

Espazioak leku bihurtzea herritarren, profesionalen eta eragile politikoen artean egin beharreko lana da.

Horrela, aurrekoa batuta eta konplexutasuna geure gain hartuta, lekuaren eta proiektuaren balio intrintsekoa den aldetik, askoz emaitza hobekak lortuko genituzke. Esanenezake espazio publiko baten arrakastarako gakoa ezartzen den medioaren konplexutasuna kudeatzeko duen gaitasunaren araberakoa dela, hain zuzen.

Profesionalok kalera irten behar dugu, kaleetan barrera ibili, kalean elkarri eragin. «Poeman lokatza egon behar du, ezin poetago diren poetek barka nazatela», idazten zuen Gabriel Celayak, eta hartara proiektuak errealtatez blaituta egon behar du, errealtatea «izan» behar du. Baita ametsak, desioak, ilusioak eta itxaropenak ere.

Eta prozesu horretan, profesionalok topatzen ditugun arazoetako bat denbora da, zorabiozko denbora bat, nagusitutako neoliberalismoak markatua, espaziorik uzten ez diona azterketari, probari, zuzenketari, ezta galderei, gogo biziari, ikasketari edo hausnarketari ere.

Gure iritzian, gauzak egiteko moduetara bideratu behar ditugu energiak; asmatu egin behar ditugu kudeaketa eta ekintzarako tresna berriak, betidanik gureak izan diren lekuak bihurtuko dizkigutenak. Proiektu bat duten espazioak nahi ditugu, ideiak dituztenak eta proposamen bat dakartenak.

Espazio publikoen kudeaketak komunitatea sortuko lukeen hiri bat nahi genuke. Aldatzen den hiria, harritzen zaituena, herritarrok elkarreaginean jardun dezagun gauzak gerta daitezen lekuak dituztenak, desberdinak direnak ordu desberdinetan eta urtaro desberdinetan, pertsonak garen eta egiten dugun espazio publikoaren erabilera den bezalaxe.

Azken batean, kontua da kalea bizitzea geure egiteko, esanahiez beteta ager dakigun, eta espazioak nortasun berezkoa duten lekuak bihurtzea.

